

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Akatsen zuzenketa, honako ebazpen honena: Vitoria-Gasteizko Zaramaga auzoko bizitegi-erai-kinak birgaitzeko esparruan zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonentzako laguntza gehigarrien deialdia, eta laguntza horien zenbatekoa udalaren hirigintza-sozietateari transferitzea, deialdiaren oinarrietan xedatutakoaren arabera ordaintzeko

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko uztailaren 19an egindako ohiko bilkuran:

Lehena. Vitoria-Gasteizko Zaramaga auzoko bizitegi-erai-kinak birgaitzeko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 24an onartutako laguntzen deialdiaren ebazpenaren I. eranskineko akats materialak zuzentzea. Hona hemen zuzenketa:

Honela dioen lekuan:

NANa DNI	Zaurgarritasunagatiko laguntza (eurotan) Ayuda por vulnerabilidad (euros)
16282045T	8.967,09
07630720X	12.688,38
13270777F 13284872A	6.117,48
16292047C	3.927,18
13276518K	12.688,38
16217742M	8.307,78
71249433X	12.688,38
16278835X	12.688,38
07630721B	12.688,38
16201165B	12.688,38
20755165B 30167988S	12.688,38
60156417D X9061957S	23.296,16

Honela behar du:

NANa DNI	Zaugarritasunagatiko laguntza (eurotan) Ayuda por vulnerabilidad (euros)
16282045T	6.725,32
07630720X	12.940,12
13270777F 13284872A	6.668,06
16292047C	4.445,37
13276518K	12.940,12
16217742M	8.890,75
71249433X	12.940,12
16278835X	12.940,12
07630721B	12.940,12
16201165B	12.940,12
20755165B 30167988S	12.940,12
72735217V	23.296,16

Era berean, aurretik azaldutakoagatik, Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko maiatzaren 24ko erabakiaren xedapen-zatiaren lehen atala honela zuzentzea:

Honela dioen lekuan:

Lehena. Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko deialdiaren betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren (2023ko ekainaren 16ko ALHAO, 70. zk.), erabaki honen I. Eranskinean zerrendatutako eskatzaileei dirulaguntza bat ematea, bakoitzarentzat adierazitako zenbatekoan. Aipatutako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa milioi bat hirurehun eta hirurogeita hemeretzi mila bederatziehun eta hirurogeita hamabi euro eta berrogeita hemeretzi zentimo da (1.379.962,59 euro).

Honela behar du:

Lehena. Zaramaga auzoan sartutako bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko deialdiaren betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren (2023ko ekainaren 16ko ALHAO, 70. zenbakia.), erabaki honen I. Eranskinean zerrendatutako eskatzaileei dirulaguntza bat ematea, bakoitzarentzat adierazitako zenbatekoan. Aipatutako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa milioi bat hirurehun eta laurogeita bat mila ehun eta hogeita hamalau euro eta hirurogeita hamalau zentimo da (1.381.134,74 euro).

Bigarrena. Hiri Ereduren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren zinegotziari berariaz eskuordetzea laguntza hauek ordaintzea baimentzeko ebazpena, Tokiko Gobernu Batzarrak alde aurretik adierazitako zenbatekoan, eta dirulaguntza hauen deialdiaren 37. artikuluan xedatutakoaren arabera (2023ko ekainaren 16ko ALHAO, 70. zenbakia.).

Hirugarrena. Laguntzen zenbatekoa transferitzeko baimena ematea indarrean dagoen udal-aurrekontuko 0410-1515-73312/R partidaren eskuragarri dagoen saldoaren kontura — 1.381.134,74 euro guztira — Ensanche 21 Zabalgunea SA udal hirigintza-sozietateari, zeinak laguntza horien zenbatekoa kontsignatuko baitu, eta onuradunei ordainduko baitie, aurreko paragrafoan eta Tokiko Gobernu Batzar honek 2024ko otsailaren 5ean hartutako erabakian xedatutakoaren arabera. (2024ko otsailaren 19ko ALHAO, 21. zk.).

Laugarrena. Akordioa udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea, eta ohartaraztea ezen haren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko - auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik, bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 19an

Alkate-lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA